

Bernardo Estornes Lasa, Euskal Entziklopediagilea

• PAULO AGIRREBALTZATEGI •

[IDAZLEA]

Azterketa konparatiboa beste nazioetako Entziklopedia nazionalie buruz... Eta Txinako... Orotariko biblioteka —eta fototeka eta pinakoteka?— izan nahi du entziklopedia erraldoiak.

Bernardo Estornes Lasa hil da. Baina bizirik utzi du berak asmatu eta bultzatu zuen *Euskal Herriaren Entziklopedia* erraldoia; orain amaitu gabe, baina esku onetan, bere alaba-arenetan. Gainera, Eusko Ikaskuntzak digitalizatu egin nahi izan du obra. Esku onetan geratu da. Bera izan da orain obraren zuzendari nagusia; eta seguruenik berak jarraituko du. Euskal kulturaren historiara igaro da, alajaina; obra erraldoi horre-egatik, beste meriturik izan ez balu ere.

Hiru gorputz ditu obrak: I. *Enciclopedia sistemática* (lehen tomoa 1968an); II. *Eusko Bibliografía* (lehen tomoa 1970ean); III. *Diccionario General Ilustrado del País Vasco* (lehen tomoa 1977an). 31-32 urteko obra. Garai bateko katedralen erai-kuntza dirudi. Hiru gorputz baina asmo berbera, Hirutasuna bezain bakarra. Hiztegia da eza-gunena, jakina, tomo gehien ere berak duelako. Baina asmoan eta gauzatzean beste biak aurretik ibili ziren. Entziklopedia tematiko-sistematikoa eta entziklopedia alfabetiko-organikoa elkarren osagarri dira. Baina euskal Herriaren, historiaren, gizartearen, geografiaren, kulturaren, hizkuntzaren, literatura-ren, arteen, etab.en berri emate-

an, gai horiei buruz idatzitako bibliografia oso interesgarria da; inolako entziklopediak ez du eremuko jakintza osoa ematen, ez eta 50 tomo edota 30.000 orrialde edukita ere. Horregatik bibliografia dator, gai bakoitzari buruzkoa, irakurleak edo kontsulta-zaleak sakondu eta zabaldu ahal izateko aukera ona izan dezan.

“
*Obra erraldoiak
autorea ere erraldoi
bihurtzen du. Orain
ez gara hasiko hemen
horren iritzi kritikoa
ematen; etorriko da
garai hobea, agian
50. tomoa argitaratu
baino lehenago*”

Gizonaren tema, eutsia, keme-na... Harrigarria da benetan, asmatzeak berak zorabioa ematen baitu; zorionez abiaburuan ez dugu ikusten helburuan zer izango den obra; bestela zorabio-aren zorabioz, ez genioke helduko. Baina Bernardo Estornesek heldu egin zion, eta burutzeari utzi du.

Baina entziklopediaz beraz

hitz kritikorik esateko betarik izango dugu, hori amaituko denean (nik uste datorren urte-an edo hurrengoan). Oraingoan, berriz, obra hori bururatu duen Bernardori buruz mintzatu behar dugu. Bi gauza esan nahi ditu *bururatu* hitzak: asmatu, buruan sortu, batetik (abiaburu-ua), eta amaitu, buru eman, bestetik (helburua). Asmatzea ez zen seguruenik oso zaila, nahiz eta irudimena eta kemena eskatzen zituen; baina besterik da obra erraldoia amaitzea.

Denok dakigu horrelako obra zenbat kostatzen den. 1990ean 27. tomoraino ziren iritsiak, eta 36tan modutu zutela uste zuten orduan; beste bederlatzi urte joan dira, eta 46tan daude dago-eneko; seguruenik 50 behintzat beharko dituzte bilduma osatze-ko.

Tomo bakoitzak 600 orrialde ditu, batz bestea: 50ekin biderkatzen badugu, 30.000 orrialde-ko obra ematen dugu. Hebraie-razkoak zenbat tomo? Japoniari buruzkoak? Entziklopedia erre-gionalak ugari dira; seguruenik ez dago pretentsio hain handi-ko. Txinako entziklopedia hura?

Obra erraldoiak autorea ere erraldoi bihurtzen du. Orain ez gara hasiko hemen horren iritzi kritikoa ematen; etorriko da garai hobea, agian 50. tomoa argitaratu baino lehenago.

Baina Entziklopedia nazio-nala hizkuntza nazionalean izan ohi da. Horixe da jauzi han-dia: Hebraiarrek, Txekiarrek, etab.

... INMA ERREA



Zertan ari dira?

Agintzen dizuet ez nuela ezer ulertu. Berandu samar jakin nuen bi gazte ginear horien heriotzaren berri, berandu eta behar ez zen eran, antza... Irakurri nuen lehen gauza izan zen Europako agintariak erabat asaldaturik eta trista-turik zebiltzala, bi nerabe ginear hil zirelako abioi baten *lurrartzeko*

trenean izkutaturik, izozturik, ezinezko zuten Europarako bidaia egiten saiatzean. Ez nuen ezer ulertu, ez gaztehoen zorigaitzoko saio-az, betirako zapuzturik, baizik eta Europako agin-tarien jarreraz. Ez nion alde ikusten aferari: zertan ziren diferente heriotza horiek Penintsula Ibe-rikoaren hegoaldeko itsasertzeetan, edo Kanarietan, behin eta berriro gertatzen diren bes-te horietatik?

Halako batean, paperean aurkitu nuen gakoa: gaztetxo ginearrek idatzi bat zeramaten, non Afri-kako jendearen aldeko laguntza eskatzen baitzuten!

Hara! Horixe zen dena! Horixe, Fontaine andrea, Europako Parlamentuaren presidentea be-ra, tristuraren besoetara jaurti zuena. Europak bi gaztetxoaren bidaia zoroa eta, batik bat, horien gut-zen izoztua behar izan ditu begiak irekitzeko. Esan beharko zaie Europara sartu nahi duten etorkin orori manifestuak eta aldarrikapenak ekartzeko. Horrela, agian, barrenak samurtuko zaizkie orain atek ixten dazkietenei...

Nik, nire ez-jakinean, uste nuen hauteskunde-etara aurkeztu eta horiek irabazteko gauza diren pertsona horiek, politika haien bizitzaren ardatz duten gizon eta emakume horiek besteok, hau da, herritar arruntok adina jakinen zutela... Ez al dituzte horiek beraiek —edo horiek bezalako beste batzuek— etorkinei atek itxeko legeak egin? Ez al dira horiek herri pobreei 0,7 horren apurrak emateko exijitzen zaienean zuhur jokatzeko duten berberak?

Dena den, gutxi iraun dute doluek eta damuek. Egunkarietan, eklipse batek itzali du Yaguine Koita eta Fode Toumkararen zorigaitzaren oihartzuna.

Mario Benedetik esan berri du: «Hipokrisia eta fribolitate globalizatu dira». Egia da: zurikeria eta arinkeria nonahi pairatzen ditugu, hala gure-an, nola mundu zabalean.

Zertan ari dira? Zertan ari gara?



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain



zuzendaritza@egunkaria.com

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefona, helbidea eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

Espetxetik euskal gizarteari zuzenduta

Eskutitz hau igortzen dugu, kalera-tzeko egiten ari garen borrokaren bidetik. Fresnes eta Herrerako kidee-kiko eta Frantzia eta Espainiako espetxeetan bereziki errepresaliatuta bizi diren beste hainbesteekiko elkartasuna adierazteko. Duela hilabete inguru honen antzeko beste gutun bat bidali genuen, baina, espetxe honetako segurtasun saila-ren lan eraginkorri esker, inoiz ez zen Madriletik atera. Bide batez,

esan dezakegu ez dela arazo isolatu bat; postaren irregulartasunak ohi-koak dira (lagunen eskutitzak galdu-ta, apurtuta, abokatuenak irekita...); hori bai, dena «nahi gabe eta boron-date onez, su etenean gaude. Hemen esaten den bezala, «de buen rollito».

Beste bi gutun ere igorri genituen, bat Herrerako zuzendaritzari eta beste bat *Instituciones Penitenciarias* delakoari, exijituz etengabeko preso-en eskubideen zapalkuntzekin (aldar-rikapen politikoak egiteagatik edo legea betetzeko eskatzeagatik) buka dezatela (Herrerako eta isolamendu-

ko bizi-baldintzetan dauden kideak). Horiek bai, uste dugu iritsi direla.

Honekin batera geure egiten dugu Euskal Herriko gizartearen gehiengo-ak behin eta berriro aldarrikatu due-na. Hau da, euskal preso guztien Euskal Herriratztea, orain eta baldin-tzarik gabe; Oreja jaunaren txotxon-gilo errepresiboari (IIPP) gogoratu ez garela inoren bahitu politikoak. Hala-ber, oroitu diegu 120 kide inguru ka-lean egon beharko liratekeela larriki gaixorik daudelako edo zigorraren hi-ru laurdenak bete dituztelako.

Horregatik guztiagatik, orain dela

hilabete bat hasi ginen txapeo erro-tatibo batekin, bi eguneko txandak egiten; horrelako bi txanda egin oste-an, hiru eguneko hasiera eman diegu, eta honelako eta beste eratako ekintzekin jarraituko dugu, egoerak orain bezala jarraitzen badu. Hau da, Euskal Herriaren jotzen duen kolo-re guztietako txaranga erraldoi baten musikari entzungor egiten dioten bitartean. Ziur egon Madrilen eta Parisen entzuten dela.

Bukatzeko, hemendik txalotu eta animatu egiten zaituztegu gure eskubideen alde borrokatzen jarrai-tzeko. Eskerrik asko. A! hemendik primeran entzuten dugu elkartasun eta borroka doinu hori. **Peio Zela-rain** • Aranjuezko preso politikoan kolektiboaren izenean